



Etika Publikorako Batzordea

Comisión de Ética Pública

**EUSKO JAURLARITZAKO
ETIKA PUBLIKORAKO
BATZORDEAREN
MEMORIA**

2023

SARRERA.

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an hasieran onartutako Etika eta Jokabide Kodeak (EJKa), gaur egun 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean jasota dagoenak, ezartzen du Etika Publikorako Batzordeak txosten bat egingo duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren sektore publikoko kargu publikodunek Etika eta Jokabide Kodea betetzen dutela egiaztatzeko. Txostenak gomendioak jaso ahal izango ditu, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio. Txostenean jasotako ondorio eta gomendioak publikoak izango dira.

Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak (EPB) 2023. urtean zehar egindako lana erregistratzea da memoria honen xedea, Gobernu Kontseiluari ezagutzera eman eta ondoren haren zabalkunde publikoa egiteko.

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN ERAKETA

Gobernu Kontseiluak 2016ko azaroaren 22an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta haren sektore publikoko Kargu Publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen testu bateginak ezartzen du Etika Publikoko Batzordea nola sortu eta osatuko den:

- Administrazio Publikoaren alorreko eskumenak dituen sailburua, batzordeburua izango dena.
- Funtzio Publikoaren alorreko eskumenak dituen sailburuordea.
- Erakundeen etikarekin, zuzenbidearekin edo gobernantzarekin lotutako gaietan esperientzia, gaitasun eta ospe profesional egiaztatua duten bi pertsona, sektore publikotik zein pribatutik etor daitezkeenak, Eusko Jaurlaritzak izendatuak.

- Eusko Jaurlaritzako goi-kargudun bat, idazkari gisa jardungo duena (hitzarekin baina botorik gabe).

Beraz, testuak berak ezartzen du nork osatzen duen Batzordea: alde batetik, administrazio publikoaren arloan eskumena duen saileko titularra, Funtzio Publikoaren arloan eskumena duen sailburuordea eta idazkari-eginkizunak betetzen dituen goi-kargua, hitza bai baina botorik ez duena, eta, bestetik, Gobernu Kontseiluak erabakitako bi pertsona, etikarekin, zuzenbidearekin edo erakundeen gobernantzarekin lotutako gaietan esperientzia, gaitasuna eta prestigio profesional egiaztatua duten pertsonen artean izendatuak.

Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez, Elsa González eta Fernando Tapia EPBko kide izendatu ziren, aipatutako gaietan duten esperientziagatik eta gaitasun profesionalagatik, aurretik izendatutako bi pertsonak ordezkatzeko.

Etika Batzordeko idazkariari dagokionez, Gobernu Kontseiluaren 2021eko otsailaren 9ko Erabakiz izendatu zen.

2023an, Etika Publikorako Batzordeak ez du aldaketarik izan osaerari dagokionez, eta, beraz, hauek osatzen dute:

- **Batzordeburua:** Olatz Garamendi Landa (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua 2020ko irailaren 8tik aurrera)
- **Batzordekidea:** José María Armentia Macazaga (Funtzio Publikoko sailburuordea 2020ko urriaren 10etik aurrera)
- **Batzordekidea:** Elsa González Esteban (Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez batzordekide izendatua).
- **Batzordekidea:** Fernando Tapia Alberdi (Gobernu Kontseiluaren 2021eko urtarrilaren 25eko Erabakiaren bidez batzordekide izendatua).
- **Idazkaria:** Jon Urbina García de Vicuña (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria, EPBko idazkari izendatua 2021eko otsailaren 9an)

Indarrean dagoen Etika eta Jokabide Kodearen testuak ez du aldaketarik izan 2023an.

MEMORIAK AINTZAT HARTZEN DUEN ALDIAN AZTERTU ETA EBATZITAKO GAIAK

2023an, EPBk 14 erabaki hartu zituen. Aipatutako hamalau erabakietatik 2k salaketak eragin zituzten, eta gainerakoek, 12k, kargudun publiko batek egindako kontsultak.

Grafikoki adierazita, eman berri dugun informazioa taula honetan laburbil daiteke:

2023. URTEA	
Salaketa edo kexa	2
Kontsulta	12
Guztira	14

Beste behin, hartutako erabakien kopuruari dagokionez, nabarmentzekoa da kontsulten ehunekoa oso handia dela salaketen edo kexen aldean; zehazki, memoria honek adierazten duen urtean, 2023an, kontsultak dira EPBra iritsi diren gaien % 85,71, eta salaketak edo kexak, berriz, % 14,29.

Hainbat eta hainbat memoriatan adierazi den moduan, joera hori errepikatu egiten da 2013an Etika Publikorako Batzordea lanean hasi zenetik, eta horrek erakusten du kargu publikodunek benetako kezka dutela Etika eta Jokabide Kodean ezarritakoa betetzeko.

Beste behin, nabarmentzekoa da zenbait kontsulta egin direla zitazio judizialekin edo fiskaltzatik hasitako ikerketekin lotuta; zehazki, 2023an, gai horiekin lotutako 4 kontsulta egin zituzten kargu publikodunek. Etika Publikorako Batzordeak aztertutako gai guztien % 28,57 dira, eta kargu publikodunek egindako kontsultei dagozkienak % 33,33 dira.

EPBk 2023an aztertu du kasu gehien, 2013arekin batera, hau da, Etika Publikorako Batzordea martxan jarri zen urtearekin batera.

Beste behin ere adierazi behar dugu Etika Publikorako Batzordearen erabaki guztiak aho batez hartu direla.

EPBk 2023an hartutako erabakien alderdirik aipagarrienak hauek dira:

a) Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuekin lotutako kontsultak.

Egonkortze-prozesuekin lotutako hiru gai planteatu zaizkio Etika Publikoaren Batzordeari, zuzenean edo zeharka.

Ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesua aurreikusten zuen. Prozesu hori hiru kasuren bidez egituratzen zuen, eta haietan, txanda librean, birjarpen-tasa arruntetik ateratzen zena baino plaza kopuru handiagoa deitzea ahalbidetuta zegoen. Hiru kasuok dagozkie bitarteko edo aldi baterako zerbitzu-harremana duten langileek inguruabar hauetakoren batean betetzen dituzten plazei:

- Legearen beraren 19. artikuluan 6. apartatuan zehaztutako sektoreetan aldi baterako enplegua egonkortzea. Plaza hauek sartuko dira: 2016ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan, gutxienez, aldi baterako eta etenik gabe bete direnen % 90, aurrekontu-zuzkidura zutenak.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren laugarren xedapen iragankorrean ezarritako moduan, aurrekontuz hornituta dauden lanpostuak eta 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.
- Epai irmo bitartez langile mugagabe ez-finko deklaraturako langileei dagozkien lanpostuak.

Ondoren, 20/2021 Legea onartu zen, abenduaren 28koa, Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen, enplegu publikoa finkatzen dela bermatzeko.

Horren guztiaren ondorioz, administrazioek (administrazio orokorrak, mendeko enteek eta toki-administrazioek) egonkortze-prozesu ugari deitu dituzte, bai ezohikoak bai bereziak.

Adierazi dugun moduan, hiru kontsulta bidali zaizkio Etika Publikorako Batzordeari, zuzenean nahiz zeharka, finkatze-prozesu horiekin lotuta.

Lehenengo kasuan, Administrazio honetan zerbitzuak ematen zituen kargu publikodun batek kontsulta bat egin zuen, beste administrazio batek (zehazki tokiko administrazio batek) enplegu publikoa finkatzeko deitutako prozesu batean parte hartzeko aukerari buruz.

Hala, toki-administrazio batek hautaketa-prozesu bat deitu zuen, enplegua finkatzeko prozesuaren bidez, Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren babesean, eta prozesu horretan parte hartzeko eskubidea baliatu nahi zuela adierazita, kontsulta egin zion EPBri, irizpena eman zezan honi zegokionez: ea deialdiaren xede zen prozesuan parte hartzeak nolabait urratzen zuen Eusko Jaurlaritzako kargu publikodun izendatu zutenean atxiki zitzaien EJKa.

Igorri zuen idazkian hau eskatzen zuen: «*Etika Publikorako Batzorde horrek deialdi berezi hartan (merezimendu-lehiaketa) nire lehiaketa substantziatu eta aldeko ebazpena eman dezan, adierazi dudun moduan, horren inguruko igurikimen oinarriak eta legitimak dudalako*».

Interesdunak bidalitako idazkian berariaz hala adierazten ez bazuen ere, EPBk uste zuen eskatzen zuena zera zela: adieraztea ba ote zegoen bateraezintasunik edo interes-gatazkarik betetzen duen kargu publikoaren eta erabat modu pribatuan gauzatu nahi duen jardueraren artean; hau da, Euskadiko sektore publiko autonomikoko kargu publikodunek eta parekatuek parte har dezaten administrazio publikoek edo haien mendeko enteek deitutako langileen hautaketa-prozesuetan.

EPBren Erabakian adierazi bezala, kargu publiko bat betetzea eta administrazio publiko batek deitutako hautaketa-prozesu batean parte hartzea bateragarriak izateko aukerari dagokionez —karguduna txertatuta dagoen organigramari dagokion administrazio bera edo beste bat izan, kasu honetan gertatzen den bezala—, ez dute ezer berriaz xedatzen ez Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legeak (KPJKIGL), ez eta EJKak ere.

Erabakiak adierazten zuen bezala, interes-gatazka gertatzeko aukerari dagokionez, lehenik eta behin gogorarazi behar da EJKaren 11.2 apartatuaren arabera kasu honetan sortzen dela interes-gatazka: *«goi-mailako kargudunek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean»*. Antzekoa adierazten da KPJKIGLren 9. artikuluan; hau da, interes-gatazka izango dela *«lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo zuzeneko senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan, lege honetan ezarritako eran»*.

Bi testuak irakurrita, erraz ondorioztatzen da biek diotela interes-gatazka sortzen dela kargu publikodunek *«erabakietan esku hartzen dutenean»* (EJKa) edo *«parte hartu behar dutenean (...) erabakietan, betiere honelako gaiekin lotuta: aldi berean interes orokorrak (betetzen den postuari dagozkionak) eta interes pribatuak (norberarenak, senideenak edo hirugarren pertsonenak) biltzen direnean»* (KPJKIGL).

Hortaz, bistakoa da kasu honetan ez genituela interes-gatazka bat gertatzeko beharrezkoak ziren baldintza faktikoak, interesdunak, kargu publikodun gisa dagozkion zereginak betetzeko garaian, ez zuelako inoiz ere esku hartu beharko, ez zuzenean eta ez zeharka, hark parte hartu nahi zuen hautaketa-prozesua izapidetu eta ebaztearekin zerikusia zuten erabakietan.

Hori guztia dela eta, EPBk ondorioztatu zuen ez zela Etika eta Jokabide Kodea urratzen tokiko administrazio batek deitutako enplegu publikoa finkatzeko prozesuaren bidez hautaketa-proben deialdian parte hartzeagatik; izan ere, kontsultaren egileak parte hartu nahi zuen hautaketa-prozesua bere eginkizunak betetzen dituen administrazioa ez den beste administrazio publiko batek deitu izanak guztiz baztertzen du interes-gatazka bat egoteko aukera.

Bigarren kasuan ere hautaketa-prozesu batean parte hartzea aipatzen zen, baina aurreko kontsultan ez bezala (non karguak deialdia egin zuen administrazioa ez zen baten prozesu batean hartu nahi zuen parte), kasu horretan planteatzen zen kontsulta egiten duen pertsonak bere zerbitzuak ematen dituen administrazio berak deitutako lan-eskaintza batera aurkeztu nahi zuela.

Kasu horretan, aztertu zen, halaber, ea interesdunak zerbitzuak ematen dituen administrazio berak deitutako eskaintza publiko batean parte hartu nahi izateak bateraezintasunik edo interes-gatazkarik sortzen zuen.

Aurreko kasuan bezala, ulertzen zen ez zegoela interes-gatazkarik, arrazoi berak tarteko.

Parte hartu nahi zuen hautaketa-prozesua Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak kudeatuko zuten. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako organismo autonomoa zen, eta interesduna Eusko Jaurlaritzako beste sail bateko kargu publikoduna zen. Disoziazio organiko garbia dago interesdunak betetzen zuen kargu publikoaren eta parte hartu nahi duen hautaketa-prozesuak izapidetu eta ebazteko organoaren artean, eta horrek agerian jartzen zuen interesdunak ez zeukala eragin eta ahalmenik deialdi publikoa kudeatu behar zuten administrazio-organoetan eta pertsonengan.

Horri gehitzen badiogu kontsulta egin zuenak betetzen zuen kargu publikoak atxikita zituen eginkizunek ez dutela inolako lotura materialik langileak biltzeko deitutako hautaketa-prozesuen deialdiarekin, kudeaketarekin eta ebazpenarekin lotutako administrazio-jarduketekin,

badirudi argi dagoela, guri zegokigun kasuan, ez zegoela behar besteko kondizio faktikorik interes-gatazka bat egon zedin; izan ere, kargu publikodun gisa betetzen zituen eginkizunetan, interesdunak ez zuen inoiz esku hartu beharko parte hartu nahi zuen hautaketa-prozesua izapidetzeko eta ebazteko erabakietan, ez zuzenean, ez zeharka.

Horregatik, EPBk ondorioztatu zuen interesdunak ez zuela Etika eta Jokabide Kodea urratzen Eusko Jaurlaritzak deitutako hautapoben deialdian parte hartzeagatik.

Azkenik, finkatze-prozesuekin lotutako hirugarren kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioentzat gordetako 27. eta 28. destinoko lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketan parte hartzeari buruz formulatutako kontsulta bati buruzkoa zen.

EPB honi egindako kontsultan, interesdunak adierazi zuen behin-behineko atxikipena duen funtzionarioa dela eta, beraz, bere burua behartuta ikusi duela lekualdatze-lehiaketan parte hartzera, *«salbu eta Etika Publikorako Batzordeak parte-hartzean bateraezintasuna ematea erabakitzen badu»*.

Bere kontsultan gaineratu zuenez, *«EAEko sektore publikoan zuzendaritza-eginkizunen kontrola sendotzeko eta gardentasuna sustatzeko, zeina EEEK arautzen baitu, uste dut saihestu egin behar dudala EAEko Administrazio Orokorraren prestigioari, duintasunari edo erakunde-irudiari kalte egiten dion ekintza edo ez-egite oro»*. Horregatik guztiagatik, EPBri eskatzen zion bere iritzia eman zezan honi buruz: *«Ea bateraezintasunik edo interes-gatazkarik dagoen betetzen dudan kargu publikoaren eta aurretik aipatutako lekualdatze-lehiaketaren prozesuan parte hartzearen artean»*.

Kontsulta hau ez zen kargu publikodun batek EPE batean parte hartzeko aukerari buruzkoa, baizik eta dagoeneko funtzionario den kargu publikodun batek lekualdatze-lehiaketa batean parte hartzeko aukerari buruzkoa. Nahiz eta, diogun moduan, goian aipatutako bi erabakietan jorratutakoaz bestelako gai bat planteatzen den, argudioetako batzuek kasu honetan Erabakia onartzeko balio izan zuten.

Batzorde honek askotariko erabakietan adierazi duen moduan, bere jarduna ordena etikoaren eremura mugatzen da, eta, batez ere, borondatez atxiki diren kargu publikodunek eta parekatuek EJKa betetzeari buruzko irizpena ematera. Halaber, adierazi du ordenamendu juridikoa betetzeak garrantzia duela, eta, beraz, kasu honetan, beharrezkotzat jotzen dugu duela gutxi onartutako Euskal Enplegu Publikoaren Legea aipatzea.

Hala, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, lehiaketetan parte hartzeari dagokionez, hau ezartzen du 98. artikulua 4. puntuan:

«Funtzionario hauek har dezakete parte lanpostuak hornitzeko deialdietan: zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta lege honetan jasotako eszedentzia-egoeretan daudenak, bai eta beste administrazio publiko batzuen zerbitzuan dihardutenak edo funtziogabetze ez-irmoa dutenak ere, baldin eta egoera horietan egon behar zuten denbora bete badute».

Bestetik, artikulua horretako 5. apartatuak hau adierazten du:

«Behin-behineko adskripzioa duten funtzionarioek, egoera horretan dirauten bitartean, nahitaez hartu beharko dute parte bere kidego, eskala edo funtzionario-taldeko lanpostuak hornitzeko lehiaketetan. Ez badute parte hartzen, ofizioz eta behin betiko esleituko zaie postu bat, deialdian ezarritako irizpideen arabera».

Kontsulta aurkezten duen pertsona, alde batetik, karrerako funtzionario gisa, eta, egun, kargu publiko bat betetz, zerbitzu berezietako egoeran dago, eta 11/2022 Legeak berak aurreikuspen zehatz bat jasotzen du lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko aukerari buruz.

Gainera, legeak behin-behineko atxikipen-egoeran dauden pertsonen lehiaketetan parte hartzeko duten betebeharrari buruzko aurreikuspen bat jasotzen du, eta parte ez hartzeak kaltea eragin liezaioke interesdunari; izan ere, kasu horretan, behin betiko lanpostu bat esleituko da ofizioz.

Bestalde, Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen arabera, karrerako funtzionarioek sustapen profesionalerako eskubidea izango dute. Karrera profesionaltzat hartuko dira hauek: hobekuntza-aukerak, mugikortasun-

aukerak eta merezimendu-eta gaitasun-printzipioen arabera araututako aurrerapen profesionalerako itxaropenak.

Hala, EPBk ondorioztatu zuen interesdunak, behin-behineko atxikipeneko funtzionario gisa, eskubidea zuela administrazioak deitzen dituen lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko, eta, planteatzen zen kasu zehatzean, bere egoera kontuan hartuta, parte ez hartzeak kalte egin liezaiokeela bere karrera profesionalen.

b) Ikertu gisa judizialki deklaratzera deitutako kargu publikodunei buruz

EPBk 2023an aztertutako hamalau kasuetatik lau kargu publikodunek parte hartu duten jarduketa judizialei buruzkoak dira.

Etika eta Jokabide Kodeak 15.d) apartatuan ezartzen du kargu publikodunek Batzordeari jakinarazi behar dizkiotela prozedura judizial penal baten barruan ikertu gisa deklaratzeko jasotzen dituzten zitazioak.

2019. urtean, zehazki 3/2019 Erabakian, Batzordeak osagai berri batekin egin zuen topo, hain zuzen ere ikertu gisa deklaratzeko deia ez zettorrelako instrukzio-epaitegi batetik, baizik eta fiskaltzak abian jarritako ikerketa-eginbide batzuetatik.

EPBren ustez, nahiz eta zalantzarikoa izan fiskaltzak sustatutako ikerketa bat (eta, beraz, dagokion instrukzio-epaitegiaren esku-hartzearen aurrekoa) berez prozesu penal baten barruan kokatzea, analogia bat zegoela ulertu zuen (arrazoi-antzekotasuna), eta eredugarritasun-printzipioan oinarrituta, 15.d) apartatuko betebeharra kasu horietara zabaltzea erabaki zuen.

Ondorio bera atera zen EPBk 2023an aztertutako bi kasutan; bietan, gobernuko bi goi-kargudunek fiskaltzaren jakinarazpen bat jaso zuten. Bertan, *«eginbideak amaitzea erabakitzen da [...] eta jarduketak hiriburu honetako dagokion instrukzio-epaitegira bidaltzea erabakitzen da, salaketa idazkiarekin»*, eta gertakariak delitu izan zitezkeela adierazi zen.

Horregatik guztiagatik, bi kasu horietan, nahiz eta berriro ere zalantzan jarri fiskaltzak instrukzio-epaitegiari dagozkion jarduketak bidali zituela

salaketa-idazkiarekin eta delitu izan zitezkeen egitateak adierazita, analogia zegoela ere esaten genuen, eredugarritasun-printzipioan oinarrituta, EJKaren 15. apartatuko 5. puntuan kargu publikodunei ezartzen zaien betebeharra hedatzeko, hau da, zigor-arloko prozedura baten esparruan ikertu gisa deitzen zaienean EPBri kontsulta egiteko betebeharra, hain zuzen, Fiskaltzak, salaketa-idazkiarekin batera, instrukzio-epaitegira egindako jarduketan berri emateko karguaren berri ematen duenean.

Beste kasu batean ere, zitazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzatik zetorren. Kasu horretan, kargu publikodunari zitazioa egin zitzaion, ikertu gisa, dirudienez, delitu baten egitateen erantzule zelako, entzun ziezaioten.

Azkenik, EPBk aztertutako laugarren kasua instrukzio-epaitegi batek goi-kargu bat ikertu gisa zitzeko kasuari buruzkoa zen.

Interesdunak bidalitako kontsultan adierazi zuenez, zitazioa beste administrazio bateko kargu publiko gisa aritu zenekoa zen, hots, ikerketa judiziala gobernuko kargu izan aurreko jarduketa bati buruzkoa zen, EJKaren mende ez zegoena.

Hala ere, Gobernuko kargu publikoduna den aldetik (EJKari atxiki zitzaionez), ulertu genuen haren mende dagoela. Ikerketaren xede den jokabidea EJKari atxikitako kargu publikoduna ez zen une batean gertatu izana ezin da oztopo izan batzorde honek esku hartzeko.

Illo horretan, EPBk badu doktrina finkatua kasu horietan, hainbat eta hainbat erabakitan aipatu dena: *«kontuan hartu behar da oinarrizko zer hiru aukera dauden aurreko puntuetan, erabakitze, berariaz, prozedura penalen edo zehapen-prozedura administratiboen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin, baldin eta karguduna ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela, eta, hirugarren aukerak, berriz, kondena-sententzia edo zehapen-ebazpena ematen den unea dela–, eta, hasiera batean eta irizpidea kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, badirudi bigarren aukeraren alde egitea dela bidezkoa, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren*

eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela izango aurreratutako kondena bat, ez eta gerora etorriko den kondena baten aurrerapena ere, kargu publikodun bat badaezpada ere kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz auzitegi eskudunak ahozko judizioa irekitzea erabakitzen duen autoa eman duelako karguduna auzipetuta dagoen prozedura penal batean, baizik eta prebentziozko neurri profilaktiko soil bat izango litzateke, eredugarritasunaren balioari indar emateko erabakitakoa eta pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona aldi baterako zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJKak 15. apartatuko 5. puntuan adierazten duena kontuan hartuta, prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da».

Horregatik guztiatik, EPBk aztertutako kasu guztietan, ondorioztatzen du kargu publikodunak karguan jarrai dezakeela, harik eta epaile edo auzitegi eskudunak, hala badagokio, ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen duen autoa ematen duen arte, eta interesdunak instrukzio-epaitegiarekin lankidetzan jarraitu behar duela, egiten zaizkion errekerimendu guztiei unean-unean erantzunez.

Gaur-gaurkoz, EPBk dakienagatik, aztertutako kasu bakar batean ere ez da ahozko judizioa ireki.

c) Abstentzioaren betebeharrari buruz

Bi kargu publikodunek planteatzen dute interes-gatazka bat egon daitekeela kontratu baten esleipenari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak % 33ko partaidetza du kontratu bat formalizatu nahi duen sozietate publiko batean, eta bi ordezkari ditu Administrazio Kontseiluan, sozietatearen kontratazio-organoa delako.

Bi kargu publikodunek kontsulta bana aurkeztu dute izan litekeen interes-gatazkari buruz, bai eta kargu publikodun diren aldetik kide diren Administrazio Kontseiluaren kontratuaren adjudikazioan parte-hartzeari eta botoaren zentzuari buruz ere. Izan ere, jakin zuten sozietateko langile batek puntuaziorik handiena lortu zuen enpresan partaidetza zuela, eta, gainera, enpresaren ahalduna zela.

EPBren Erabakian, gaiaren mamiari heldu aurretik, adierazten zuen berari ez zegokiola erabakitzea ea gerta litekeen interesdunek, kargu publikodun izanik, urratzea goi-kargudunen eta zuzendaritza-kide publikoen bateraezintasunen esparruan eta kontratazio publikoaren eremuan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa, baldin eta lizitazio-prozesu horretan parte hartzen bazuten, eta bere egitekoa dela interesdunei adieraztea zer prozedurari jarraitu behar dioten adierazitako prozesuan, kargu publikodun gisako jokabidea bat etor dadin EJKaren oinarri diren balio, printzipio, jokabide eta portaerekin.

Hain zuzen, Etika Publikorako Batzordeak, ordena etikoaren eremura mugatu nahi izan du bere lana lehenengo ebazpenak eman zituenetik, eta, soil-soilik, EJKarekiko borondatezko atxikipena formalizatu duten kargu publikodunek eta parekatuek EJKa betetzen duten ala ez erabakitzera. Ordenamendu juridikoaren betetze hori ez da inola ere batere hutsala, baina ez da Batzordearen eginkizunetako bat administrazio-jarduera baten legezkotasunari buruzko iritziak ematea edo, hala badagokio, goi-kargudunen jokabidearen zuzentasun juridikoari buruzkoak.

Termino horietan, EPB honen jarduketa-eremua kontuan hartuta, egindako kontsultetan interes-gatazka bat egoteko dagoen aukera posibleari buruzko iritzia eskatzen da, bai eta, kontratua lizitazio publikora atera duen eta kontratazio-organo gisa jarduten duen sozietatearen Administrazio Kontseiluko kide diren aldetik behatu behar duten jarduketari buruzkoa ere.

Hori horrela, EJKak, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak sistematikoki nabarmentzen dituenak, hau ezartzen du 5.2.1 apartatuan: *«erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, kargu publikodunek eta parekatuek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera. Printzipio horiek, bereziki, kontratazio-prozeduretan, dirulaguntzak ebatzean, arauen aplikazioan edo, azken batean, finantza-baliabideen edo bestelako erabilpenean baliatuko dira».*

Mandatu horrekin estuki loturik, 5.2.4 apartatuak dioenez, goikargudunek eta parekatuek *«bere eginkizunak zuzen betetzea eragotz edo traba dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikieneko izanda ere. Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertzea erabaki edo ebatzen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunaren mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza».*

«Ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu dutelako edozein susmo pitz dezakeen ezer».

Gehienetan badaezpadako edo kautelazko neurriak dira, interes-gatazka saihestea helburu dutenak, jakina. Neurri horien xedea da goikargudun eta parekatuen jardueri lotutako balizko interes-gatazken inguruan sor daitezkeen kezka edo susmo guztiak errotik ebakitzea.

Hori dela eta, ondorioztatzen zen ezen, nahiz eta inolako akatsik ez egon kontratazio-espeditentea izapidetzean eta ez egiaztatu interes-gatazkarik zegoela, susmoak edo zalantzak uxa zitezen ebatzen edo erabaki batek pertsona bati mesede egiteaz, edozein motatako interes

partikularren eragina izateaz eta jarduerak pertsona edo entitate publiko edo pribatu jakin batzuekiko favoritismo-susmo oro sortzeaz, proposatzen zen kontsultaren egileek kontratuaren adjudikazioan parte har ez zezaten.

d) Kontratu txikiak salatzea

2023an bi salaketa bakarrik aurkeztu dira EPBn, eta biak pertsona berak jarri ditu, Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide batek.

Kasuetako batean, kontsulta egin zion Batzordeari, Eusko Jaurlaritzako sail batek egindako bi kontratu txikiren adjudikazioari buruz, zehazki: kargu publikodun batek enpresa bati bi kontratu txiki adjudikatu zizkion, enpresa horren ahalduna izana bazen ere, eta, salaketan adierazi zuenez, enpresako ardura utzi zuenetik bi urte igaro gabe.

EPBk berriz ere adierazi zuen bere jarduna ordena etikoaren eremura mugatzen dela, eta, horren barruan, irizpena ematera ea EJKari beren borondatez atxiki zaizkion kargu publikodunek eta parekatuek EJKa betetzen duten, eta ezin ditu beretzat hartu elementuak epaitzeko eta baloratzeko funtzioak, baldin eta, bere eremu subjektibotik kanpo, legeak beste organo espezifiko eta zehatz batzuei bakarrik erreserbatzen badizkie.

Legebiltzarkideak igorritako salaketa jaso ondoren, aipatutako kargu publikodunari haren berri eman zitzaion, Etika Publikorako Batzorde honetara egoki iritzitako adierazpenak eta alegazioak bidal zitzaizkien jasotako kontsultan egiten ziren gertakari eta gogoetei buruz.

Interesdunak bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi zen, salaketan aipatzen ziren kontratu txikien kasuan, ondorioztatu zela kargu publikodunak ez zuela parte hartu bi kontratuen adjudikazioan.

Lehenengoan, espedientea izapidetu zuen Eusko Jaurlaritzako sailaren egitura organikoari buruzko Dekretuaren arabera, adjudikazioa beste

kargu publikodun bati zegokion, baina salaketan adierazten zen pertsonak sinatu zuen, eskumena zuen karguduna ez zegoelako, betiere 2021eko abuztuan sail horretako organoak ez bazeuden ordezkapenak arautzen zituen sailburuaren aginduari jarraituz.

Salaketan adierazitako beste kontratua goi-kargudunak zerbitzuak ematen zituen saileko Zerbitzu Zuzendaritzak izapidetu eta adjudikatu zuen, goi-kargudunak esku hartu gabe.

Gainera, EPBk adierazi zuen sail bateko kargu publikodun bat enpresa baten ahaldun izan izanak ez duela esan nahi sail horrek ezin duenik kontraturik egin enpresa horrekin, betiere kargu publikodunak ez badu inola ere parte hartzen kontratuaren izapidetzean eta adjudikazioan.

Horren arabera, EPBk ondorioztatu zuen Eusko Jaurlaritzako sailak ez zuela Etika eta Jokabide Kodea urratu bi kontratu txiki adjudikatzeagatik.

Halaber, Erabakian EJKak behin baino gehiagotan adierazitakoa gogorarazi zuen: egoerak hala bultzatuta arduraren bat eduki duen sozietateekin zerikusia duten kargu publikodun gisa esku hartu, kontsultatu edo erabaki behar bada, abstenitu egin beharko da, eta bere erantzukizunak hierarkian gorago dagoenari edo, hala badagokio, inguruabar horien eraginik ez duen saileko edo entitateko beste edozein kargu publikori eskualdatu beharko dizkio, edo, bestela, EPBri kontsultatu beharko dio.

e) Balizko bateraezintasun bati buruzko kontsulta.

Gobernuko kargu publikodun batek idazki bat igorri du Etika Publikorako Batzordera. Haren bidez galdetu du ea bere lehen mailako ahaide bat deialdi batean aurkez daitekeen, baldin eta deialdiak egin badu goi-kargudun aritzen den sailari atxikitako zuzenbide pribatuko ente publiko batek.

Igorritako idazkian adierazi zuen lehen mailako senide batek uste zuela baldintzak betetzen zituela eta izena eman nahi zuela enteak argitaratutako deialdian.

Zuzenbide pribatuko ente publikoa atxikita dago kargu publikodunak zerbitzuak ematen zituen sailari, eta, kargu publikoduna izanik, Zuzendaritza Kontseiluko burua eta Patronatuko kidea zen. Adierazi zuenez, sail horretan betetzen ditu izendapenagatik dagozkion eginkizunak, eta ez du parte hartzen enteak egiten dituen deialdietan hartutako erabakietan, adjudikaziotan eta eztabaidetan.

Etika Publikorako Batzorde honi bidalitako kontsultan irizpena emateko eskatu zion, ea, inguruabar horiek tarteko, senidea deialdian aurkezteko eragozpenik ba ote zegoen.

EPBren Erabakian adierazten zenez, bidalitako kontsultan lehen mailako senide bat deialdian aurkezteko eragozpenik ba ote zegoen erabakitzeke eskatzen bazen ere, gure ustez planteatzen ari zena zera zen, ea hura aurkezteagatik nolabaiteko mugarik ekarriko zion EJKaren mendeko goi-kargudun gisa jarduteko.

Gogoeta hori egiten genuen ez dagokiolako EPB honi EJKaren mende ez dagoen herritar batek egin ditzakeen jarduketei buruzko iritzia ematea; bestalde, uste genuen, beste edozein herritar bezala, administrazio publikoek egiten dituzten deialdietara aurkezteko legitimatuta dagoela.

EPBri zegokiona zen zehaztea ea, deialdian aurkeztuz gero, kargu publikodunak mugaren bat izango zukeen bere jardunean, bateraezintasunen bat edo interes-gatazkaren bat egon zitekeelako.

EPBk adierazten duen moduan, *«erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, goi-karguek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera. Printzipio horiek, bereziki, kontratazio-prozeduretan, dirulaguntzak ebaztean, arauen aplikazioan edo, azken batean, finantza-baliabideen edo bestelako erabilpenean baliatuko dira».*

Mandatu horrekin estuki loturik, 5.2.4 apartatuak dioenez, goi-kargudunek eta parekatuek *«bere eginkizunak zuzen betetzea eragotz edo traba*

dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikieneko izanda ere.

Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunen mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza».

EJKaren 6. apartatuak, kargu publikodun eta parekatuen osotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak biltzen dituenak, ezartzen du, halaber, kargu publikodun eta parekatuek jokabide eta portaera hauek izan beharko dituztela, besteak beste, osotasun-balioari eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei dagokienez:

- «Ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu dutelako edozein susmo pitz dezakeen ezer.
- Inoiz ez dute postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka erabiliko norberarentzako abantailak lortzeko; edo, bestela ere, abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan».

Horregatik guztiagatik, EPBk hau ondorioztatu zuen kontsulta honetan: kargu publikodunaren senideak zuzenbide pribatuko ente publikoak egindako deialdira aurkeztea erabakitzen badu, ez du parte hartuko deialdiarekin zerikusia duen ezein esku-hartzetan, ez kontsultarako, ez erabakiak hartzeko.

f) EJKaren aplikazio-eremu subjektiboa.

Beste behin, Etika eta Jokabide Kodearen aplikazio-eremu subjektiboari buruzko gai bat planteatu zaio Batzordeari.

Gai hori behin eta berriz errepikatzen da EPBn, eta Batzordeak hainbat aldiz eman du bere iritzia.

Salaketa hori lehenago aipatu den legebiltzarkide berak aurkeztu zuen, eta zalantzan jartzen zuen goi-kargu ohi bat, erantzukizunak utzi ostean, enpresa pribatuan lanean hasiko zenik.

Idazkian adierazten zuen kargu publikodun ohi bat enpresa pribatuetan hasi zela lanean, kargua utzi zuenetik bi urte igaro gabe, eta zegokion bateragarritasuna eskatu gabe.

Beste behin, EPBk adierazi behar izan zuen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudia —eta, zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa— jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen jarduera bateraezinak berariaz arautzen dituen arau juridikoan. Arau horretan diziplina- eta zehapen-araubidea ezartzen da, eta, legezketasun-printzipioari jarraituz, lege-lerruneko testu baten bidez araututa dago, zehazki, ekainaren 26ko 1/2014 Legean (zeinak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen).

Lege-testu hori aztertuz gero, ikus dezakegu bateragarritasun-baimenak eta horien inguruabarren kudeaketa eta kontrola Etika Publikorako Batzordekoak ez diren organoen esku uzten dituela. Horrela, aipatutako Legeak eta, modu zabalagoan, hura garatzeko Dekretuak —azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuak, kargu publikodunen betebeharrak eta eskubideei buruzkoak—, bateragarritasun-prozedura bat ezartzen dute deskribatzen diren egoerentarako. Prozedura horrek ez du aurreikusten EPB honek esku hartuko duenik, ezein fasetan. Izan ere, Batzordearen jardueraren helburua ez da kudeaketa administratiboa oztopatzea, baizik eta hura legegileak eta Eusko Jaurlaritzak aldarrikatutako printzipio eta balio etikoetara egokitzen den ebaluatzea.

Batzordeak ezin du bere gain hartu elementuak epaitu eta baloratzeko eginkizunik, legeak, bere eremu subjektibotik kanpo, beste organo espezifiko eta zehatz batzuen esku uzten duenik.

Ondorioz, ez dagokio EPBri zehaztea kargu publikodunak kargua utzi zuenetik bi urte baino gutxiagora sektore pribatuan jarduten hasteak urratu egiten duen ala ez goi-kargudunen eta zuzendari publikoen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa

Bestalde, Etika Publikorako Batzordeak askotan adierazi duen moduan, Etika eta Jokabide Kodearen (EJKa) ondorioak denbora-muga subjektibo jakin batzuekin hedatzen dira. Horrela, bada, kargu publikodunak ofizialki izendatu ondoren eta haien preskripzioak «banakako atxikitzearen» bidez betetzeko konpromisoa hartu dutenean soilik eragingo diete kodearen preskripzioek kargu publikodunei.

Denboraren ikuspegitik, EJKan jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak lehen aipatutako kargu publikodunei aplikatuko zaizkie, kargu publikodun horiek legez ezarritako prozeduraren arabera izendatu diren eta Kodearekiko atxikipena formalizatu duten unetik aurrera, eta kargu-eginkizunetan jarraitzen duten bitartean.

Horregatik guztiagatik, EPBk erabaki zuen aurkeztutako kontsulta ez hartzea kontuan eta, ildo horretan, artxibatzea, izan ere, pertsona hori jada EJKaren preskripzioen mende zegoen kargu publiko baten titularra ez zenean gertatutako inguruabarrei buruzkoa zen. Halaber, adierazi zuen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako Langileen Erregistro Zerbitzuari dagokiola kargu publikodunen bateraezintasunen araubidea, Kargu publikodunen Jokabide Kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen arabera.

Antzeko beste kasu bat planteatu zen ente publiko bateko langile batek ente horren kargu izandako pertsona baten aurka jarritako salaketari dagokionez; kontsulta ente publikoak berak bidali zuen EPBra.

Igorritako idazkian adierazten zenez, salaketaren kopia bat bidaltzen zaio EPB honi, «*azter dadin*», baina ez da besterik zehazten. Ildo horretan, ulertu genuen kontsultaren helburua zela EPBk azter zezan ea kargu publikodun ohiak Etika eta Jokabide Kodea urratu zuen edo ez, hori baita Batzordearen eginkizuna.

Aipatu dugun moduan, EPB honek erantzuna eman behar izan die zenbait salaketari, eta haietan, salatutako egitateen egileak, azken batean, EJKaren aplikazio-eremu subjektibotik kanpo daudela ebatzi da.

EPBk berriro aipatzen du erabakian EJKaren aplikagarritasun-eremuari buruz darabilen doktrina; hots, KPJKIGLren 4. artikuluko katalogoan agertzen diren kargu publikodunei bakarrik aplikatzen zaie.

Horregatik guztiagatik, aurreko kasuan bezala, EPBk kargu publikodun ohiari buruz ente publikoan aurkeztutako kontsulta ez onartzea erabaki zuen, EJKaren aginduen mende ez zegoelako.

g) EPBren beraren jardunari eta anonimotasunari buruzko kontsulta.

Kasu honetan, legebiltzarkide batek kontsulta bat igorri zion EPBri; hain zuzen ere, Batzorde honi aurretik aurkeztu zion eta 4/2022 Erabakia ekarri zuen kontsulta bati buruzkoa. Planteatutako gaia kontsultatzat hartu badugu ere (interesdunak kontsulta gisa bidali zuen), gure ustez funtsean EPBren jarduna salatu nahi zuen, anonimotasuna mantentzeari zegokionez.

Interesdunak bidalitako idazkian adierazi zuen, bere ustez, Batzordeak Kode Etikoaren 16.6 artikulua urratu zuela, aurreko kontsultaren izapidean ez zelako bere nortasuna ezabatu. Zehazki, adierazi zuenez, aipatu Gobernuko zuzendariari kontsulta bidali zitzaionean, osorik igorri zitzaion, bere nortasuna ezkutatu gabe, eta, ondorioz, mehatxuzko mezu elektronikoa bat jaso zuen zuzendariaren abokatuaren aldetik.

Eskatzen zuen Etika Publikorako Batzordeak jakinaraz zezan nork bidali zion bere nortasuna adierazten zuen kontsulta salatutako zuzendariari, eta balora zezan ea horrek Kode Etikoa edo aplikagarria den beste edozein lege urratu zuen, mehatxuzko mezu elektronikoa bat bidaltzeak kode etikoa urratzen duen, eta, azkenik, ea etikoa den ezer ez egitea mezu elektronikoa bidaltzearen kontra.

Aurreko kontsultan, 4/2022 Erabakia egitea eragin zuena, legebiltzarkideak EPB honek esku har zezala eskatu zuen, eta Jaurlaritzako kargu publikodun baten portaera aztertzeko. Erabaki hori Batzordearen webgunean

argitaratu zen, salatzailearen eta salatuaren datu pertsonal guztiak ezabatu ondoren.

2022ko uztailean, EPBk hartutako Erabakiaren kopia igorri zitzaien kontsulta aurkeztu zuen legebiltzarkideari eta salaketaren xede zen goikargudunari.

Uztailean bertan, salatutako kargu publikodunaren abokatuak mezu elektronikoko bat igorri zion legebiltzarkideari, eta esan zion Etika Batzordearen Akordioa baliogabetzeko egokitzat jotzen zituzten ekintzak egingo zituztela, eta gogorarazten zioten zuhurtziaz jokatzeko eta akordioa ez erabili, zabaldu eta erreproduzitzeko betebeharra. Azkenik, adierazi zion, betebeharrak hori bete ezean, eskubidea zutela egokiak ziren legeko ekintzei ekiteko.

Mezu horren kopian Etika Publikorako Batzordeko lehendakari eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua jarri zen.

EPBren irizpenean adierazten zen salatutako kargu publikodunak «*ez zuela behar bezala bete*» Kode Etikoa, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) iragarki bat argitaratzea erabaki zuen, egoera horren berri emateko. Iragarkia 2022ko urriaren 13ko EHAAn argitaratu zen.

Martxoan, legebiltzarkideak EPBren Erabakiaren jakinarazpena eskuratu eta salaketaren xede den kargu publikodunaren abokatuaren mezua jaso eta 8 hilabetera, EPBren esku-hartzea eskatzen duen pertsona kide den talde parlamentarioak salatu egin du EPBren funtzionamendu irregularizat jotzen duena; izan ere, ez zuen gorde salaketa aurkeztu zuen legebiltzarkidearen anonimotasuna eta ez zuen ezer egin jasotako mehatxuen aurrean.

Prentsak talde parlamentarioaren salaketaren berri eman zuen. Bertan adierazten zenez, «*EPBren funtzionamendu irregularra egon zen, eta Lakuako Gobernuak "ez du hatz bakar bat ere mugitu" (...) legebiltzarkideak (...)ren abokatuaren aldetik jasan zituen mehatxuen aurrean*».

2023ko apirilean, EPBn kontsulta aurkeztu zuen legebiltzarkideak Datuak Babesteko Euskal Bulegora (DBEB) jo zuen, eta eskatu zion azter zezan ea Batzordeak urratu zuen anonimotasuna mantentzeko betebeharra, eta

horrek karri zuen kargu publikodunaren abokatuaren mehatxuak jaso zitzen.

DBEBk kontsulta jaso ondoren, EPBri helarazi zion, auziari buruzko txostena egin zezan eta hura ebazteko garrantzitsu iritzitako dokumentazioa igor zezan.

Batzordeak hala egin zuzen, emandako epearen barruan, eta txostena ez ezik, 4/2022 Erabakiari zegokion dokumentazio osoaren kopia igorri zuen. Txostenean, besteak beste, argudio hauek zeuden:

- Kontsulta/salaketa aurkezteko moduak aditzera ematen zuen ez zuela pertsona batek partikular gisa aurkezten, ordezkari publiko gisa baizik.
- Anonimotasunaren gaia dagoeneko aztertu du Batzordeak, eta konfidentzialtasuna bermatzen da uste bada haren edo salatzailearen aurkako errepresalia motaren bat egon litekeela.
- Salatutako kargu publikodunaren abokatuaren aldetik jasotako «mehatxuak» deritzenak legezko ekintzak gauzatzeko aukeraz ari dira, eta hori ezin da inola ere «mehatxu»tzat hartu; izan ere, kontzeptu horren erregulazioa Zigor Kodean dago jasota, eta legezko akzioak hasteko eskubidea erreserbatzeko adierazpena ezin da inola ere halakotzat hartu.

DBEBk aurkeztutako erreklamazioa artxibatzea erabaki zuen, eta, beraz, EPBk uste zuen Etika Publikorako Batzordeak ez zuela jarduketa irregularrik egin.

DBEBko zuzendariak espediente horretan emandako ebazpenean, besteak beste, hau adierazi zuen:

- *«Manuak (EJKaren 16. art.) konfidentzialtasun-betebeharra ezartzen du Batzordeko kideek beren eginkizunak betetzean erabiltzen duten informazioari dagokionez; oinarri juridikorik ez duen informazio hori hirugarrenei jakinaraztea eragotzi nahi da; dena den, ezin diogu*

hirugarren baten izaera eman salatuari, zeinari egotziko baitzaio, hala badagokio, Batzordeak egiten duen gaitzespena».

- *«Horri dagokionez, esanguratsuak dira Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeak egindako aurreikuspenak...“Salatzaileak hala eskatzen badu, haren identitatea babesteko neurriak hartuko ditu Administrazioak”».*
- *Salaketa legebiltzarkide batek sinatu duenez, eta salaketa aurkezteko moduagatik, «baiezta dezakegu (...)ren jarduketa parte-hartze politikorako eskubidea gauzatzearen esparruan gertatzen dela [...] legebiltzarkideen informazio-eskubide hori, beren ius in officium delakoaren parte dena, eskubide kualifikatua da, eta edozein pertsonak balia dezake gardentasunaren arloko araudiaren babesean, eta, beraz, ez da kasualitatea eskaera askotan eskatzailearen legebiltzarkide izaera aipatzea».*
- *«Bestalde, legebiltzarkide izateak, halaber, edozein pertsonak dauzkan pribatutasun-itxaropenak murriztu egiten direla esan nahi du».*
- *«Erreklamazioaren xede den datuen tratamendua aztertu ostean, ondoriozta dezakegu informazio hori, soilik, salatuari komunikatu zaiola, legebiltzarkide batek kontrol-funtzioa betetzean sortu dela, eta haren pribatutasuna ez dela nagusitzen kasu honetan babesa merezi duten beste ondasun juridiko batzuen aurrean».*

Horregatik guztiagatik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak aurkeztutako erreklamazioa artxibatzea ebatzi zuen.

Hori guztia oinarri hartuta, EPBk erabaki zuen ez onartzea aurkeztutako kontsulta, ez zegoelako lotuta kargu publikodunek Etika eta Jokabide Kodean jasotako balioak, printzipioak edo jokabideak ez betetzearekin.